

## Euskadiko Ikus-entzunezko Klusterreko zenbait enpresak Huhezi bisitatu dute

2009/02/18

Otsailaren 17an EIKEN Euskadiko Ikus-entzunezko Klusterreko bost lagun izan ziren Mondragon Unibertsitatearen Huhezi fakultatean, klusterreko lau enpresaren izenean. Bisitariak etorri ziren hitz egitera Ikus-entzunezko Komunikazioa karrerako arduradunekin, eta berauekin informazioa trukatzeko asmoarekin.

Ondoko ordezkari hauek agertu ziren Eskoriatzan astearte arratsaldean:

- Idurre Cajaraville (Baleuko)
- Itziar Azpeitia (EITB)
- Igor Olaizola (Vicomtech)
- Nora Busturia eta Itziar Mena (EIKEN)

Bai unibertsitateko arduradunek eta baita klusterrekoek interesa zuten **diagnostiko bateratu bat** egiteko, orain hiru urte elkarrekin egindakoa eguneratuz, eta jakiteko Huhezik zer proposamen aurkeztuko duen Madrilen Ikus-entzunezko Komunikaziorako.

Horrezaz gain, informazioa trukatu zuten beste hainbat gairen inguruan: Komunikaldiak, Huheziko zinema saioak eta Huhezinema film laburren jaialdia. Bisitariak aukera izan zuten, gainera, ikusteko Huheziko ikasleek egindako zenbait lan ikus-entzunezko.

Bisita arratsaldean luzatu zen, eta, etxera egin aurretik, **EIKENeko kideek hainbat proposamen egin zituzten**, Huheziko irakasleek gogo onez hartu zituztenak. Aurrera begira, alde biek espero dute horrelako harremanek segida izatea, ikasketen onerako eta ikasleei enpresarekin lotura zuzena eskaintze aldera.

